



# URRERA!

64. zk.

2018ko ekaina

Berrikuntza eta Teknologia Berrien dibulgaziozko aldizkaria

*Bulego Teknologikoak argitaratua*

**Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza**

## AURKIBIDEA

- Euskara Eusko Jaurlaritzako informatikari korporatiboaren lanpostuan

2. or.

- Espedienteen digitalizazioa Lanbiden

6. or.

### Alboan:

- Gauzen Internet (IoT): proiektu pilotuak

10. or.

### Kontrazala:

- Badator Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO)

- María Ángeles Martín Prats irakasleak jaso du Emakume Teknologoarentzako Ada Byron saria

12. or.

**A**urrera aldizkari berri honetan, euskarari eskaini nahi diogu lehen gaia. «*Euskara Eusko Jaurlaritzaren informatikari korporatiboaren lanpostuan*» izenburua duen artikulua bidez, euskara lanpostuan erabiltzeko eskura ditugun aukerak ezagutarazi nahi dizkizuegu. Artikulua irakurtzeko eta, batez ere, zuen gailu elektronikoak euskarazko profilarekin konfiguratu eta erabiltzeko eskatzen dizuegu.

Bigarren gaian, euskal Administrazioaren digitalizazio-proiektu garrantzitsuenetako bat aurkezten dizuegu, alegia, Lanbide burutzen ari dena. Artikulu horretan, erreparatuko dugu zein abiapunturi aurre egiten dioten egunero Lanbidek Euskadi osoan sakabanatuta dituen bulego guztiek, zein arazori aurre egin behar dioten orain leihatilako langileek beren lana bete ahal izateko eta zein tresna teknologiko erabiliko den: PLATEA, **dokusi...**

«*Alboan*» atalean, IoT (Gauzen Internet) delakoari buruzko mintegian, duela gutxi Lakuan antolatu zen horretan, aurkeztutakoaren laburpen bat egingo dizuegu. Kasu honetan, bai EJIek bai Itelazpik azken asteetan/hilabetetan egin dituzten proiektu pilotuetan jarriko dugu arreta. Artikuluan ikusiko duzuenek, teknologia berri hori eremu zabalean eta askotarikoan frogatzen ari da, hain zuzen ere edozein sailek edo erakunde autonomok dituen beharrei erantzun ahal izateko.

Azkenik, «*Kontrazala*» atalean, data garrantzitsu bat gogoraraziko dizuegu: 2018ko maiatzaren 25a, egun horretan hasi baitzen aplikatzen Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor berria.

Era berean, «*Protagonistak*» atalean, oraingo honetan María Ángeles Martín Prats Sevillako Unibertsitateko irakasle titularrari buruzko berri labur bat emango dugu, duela gutxi «*Emakume Teknologoarentzako Ada Byron saria*» jaso baitu.

## Euskara Eusko Jaurlaritzako informatikari korporatiboaren lanpostuan



Eusko Jaurlaritzak azken urteetan burutu dituen ekimenei esker, gaur gure lanpostua euskaraz konfiguratu, eta horrela lan egin dezakegu (ordenagailuetan, aplikazioetan, telefonoetan, mugikorretan...).



<sup>1</sup> **Esaera:** jatorrizko esaldia Joxean Artzek idatzi zuen, euskaraz:

«Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik»



*Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik»,* dio euskaldunen artean oso ezaguna den esaera batek<sup>1</sup>.

Horregatik, euskararen erabilera teknologia berrien eremuan bultzatzeko eta sustatzeko asmoz, oraingo honetan gure eguneroko lanean euskara erabiltzeko eskura ditugun aukeren eta baliabideen berri emateko erabiliko dugu artikulu hau.

### BALIABIDEAK

Ondoren, horietako batzuk errepatatuko ditugu eta euskaraz lan egiteko eman behar ditugun pausoak azalduko ditugu.

Zehatz-mehatz hasi baino lehen, esan behar dizuegu Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboko langile guztiak «**Aplikazio korporatiboen katalogoa**» izeneko atari baterako sarbidea daukate; bertan, aplikazio edo software batzuk ditugu eskura, bai gaztelaniaz bai euskaraz.

Hona hemen atarian sartzeko eta horko



edukia ikusteko modua:

1. Ireki Internet Explorer Korporatiboa nabigatzailea
2. Sartu webgune honetan:

<https://auto.sccm.ejie.es/CMApplicationCatalog>

(Oharra: «Gogokoak» izeneko atalaren barruan «EJAPPS Store - Aplikazioak» izeneko esteka bat daukazue, eta horrek webgunera darama)

Ondoren, aukera horietako bat instalatu nahi izanez gero, hori hautatu eta behealdean dagoen «Instalatu» botoia sakatu baino ez dugu egin beharko.

Katalogo hori kontsultatzera eta, batez ere, euskarara egokitutako aplikazioak instalatzera animatzen zaituztegu, hala nola: «Adobe Reader DC -Euskara» eta «Adobe Reader XI - Euskara».

Orain, gure eguneroko lanean erabili ohi ditugun gailuetako bakoitzean jarriko dugu arreta.

### ➤ ORDENAGILUAK

Eusko Jaurlaritzaren ordenagailu korporatiboek (bai mahai gainekoek bai eramangarriek) Windows 7 sistema eragilea eta Microsoft Office eta LibreOffice pakete ofimatikoa dauzkate, eta horiek euskaraz erabiltzeko konfiguratu daitezke.


Euskarazko profila oraindik gaituta eduki



ezean, urrats hauek egin behar dira:

- ✓ Joan «Inicio» botoira
- ✓ Hautatu «Panel de Control» aukera
- ✓ Sartu «Configuración regional y de idioma» atalean
- ✓ Joan «Teclado e idiomas» fitxara
- ✓ Eta, menu zabalgarrian, aukeratu «euskara»

Hori nahikoa litzateke.



Beharrezko baimenak ez badauzkazue edo nolabaiteko laguntza behar baduzue, gomendatzen dizuegu Erabiltzaileen Laguntza Zentroarekin (ELZ) harremanetan jartzea; hori euskarazko profila konfiguratzear edo gaitzeaz arduratuko da.

Gaur egun, 1.250 ordenagailu inguruk daukate euskarazko profila konfiguratuta (Eusko Jaurlaritzan gutxi gorabehera dauden 6.000 PCetatik).

Etorkizunari begira, jakinarazten dizuegu laster bai sistema eragilearen bai pakete ofimatikoaren **migrazioa**<sup>2</sup> gertatuko dela eta, beraz, Windows 10 eta Office 365 erabiltzen hasiko garela, hurrenez hurren. Bada, kasu honetan, sistema eragilea eta pakete ofimatikoa **bestarik ezean euskaraz konfiguratuta** egongo dira EJIEk ematen dizkigun ekipamendu guztietarako.

**Internet nabigatzaileak** ere euskarazko menuak edukitzeko konfigura litezke:

[Oharra: egin behar diren urratsak instalatutako nabigatzailearen bertsioaren arabera alda litezke]

- Internet Explorer-en

Herramientas → Opciones de Internet → General fitxa → Idiomas → Agregar → Hautatu Euskera → Aceptar

- Mozilla Firefox-en

Configuración → Opciones → Idioma atala → Hautatu / Gehitu Euskera → Aceptar

- Chrome-n

Configuración → Configuración Avanzada → Idiomas atala → Añadir Idiomas → Hautatu Euskera → Añadir

Internet nabigatzailearekin zerikusia duen beste aukera bat <https://www.lehenhitza.eus> webguneak eskaintzen diguna da. Bertan, *plug-in* bat deskargatu ahalko dugu besterik ezean euskarazko bertsioa duten webguneak ikusteko.

## ➤ HELBIDE-LIBURUA

Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboko edozein pertsonak eska dezake posta elektronikoko helbide-liburuan bere izenaren ondoan ohar hau sartzeko: «(eu)».

Horrek esan nahi du pertsona hori telefonoz euskaraz erantzuteko eta euskaraz hitz egiteko prest dagoela.

izena	Titulua	Laneko...	ikobile...	Sello	Helbide elektronikoa	Etresura
Gov	Larbidu	ELCOTAT - DVE				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Salut				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Gobernanzia Publiko eta Autogobernua				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Salut				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Lehenhitza				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Autoridad Vasca de la Competencia				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Salut				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Medio Ambiente, Planif. Terr. y Vivienda				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Gobernanzia Publiko eta Autogobernua				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	ELCOTAT - DVE				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Trabajo y Justicia				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Salut				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Agencia Vasca del Agua				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Medio Ambiente, Planif. Terr. y Vivienda				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Instituto Vasco de Administración Pública				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Medio Ambiente, Planif. Terr. y Vivienda				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Agencia Vasca de Cooperación al Desarrollo				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Turismo, Comercio y Consumo				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Larbidu				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Gobernanzia Publiko eta Autogobernua				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Desarrollo Económico e Infraestructuras				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Educación				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Trabajo y Justicia				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Educación				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco
Gov	Larbidu	Osakidea				Eusko Jaurlaritzaren - Gobierno Vasco



<sup>2</sup> **Migrazioa:** informazio gehiago nahi izanez gero, Aurrera aldizkariaren 63. zenbakiko «Windows 10 eta Office 365» artikulua kontsulta dezakezue (2018ko martxoan argitaratu zen)



<sup>3</sup> **IP telefonia:** teknologia berri hau zertan datzan jakiteko, Aurrera aldizkariaren 6. zenbakiko «IP bidezko ahotsa» artikulua kontsulta dezakezue (2001eko abendua).

Eta nola lortzen da hori?

Interesdunak bere saileko informatika-arloko arduradunarekin harremanetan jarri beharko du (eskuarki zerbitzu-zuzendaritzari esleituta egoten da), EJI Erentzako eskaera bat izapidetu dezan (eskaera-mota: «Erabiltzaileen kudeaketa. Datu-aldaketa»; profilari «eu» etiketa gehitu nahi zaiola adierazi behar da). Ondoren, eskaera hori EJIeko **Erabiltzaileen Arreta eta Laguntzarako Zerbitzuari** bidaliko zaio, eta zerbitzu horrek izapidetuko du.

### ➤ TELEFONIA

Komunikazio-zerbitzuari dagokionez, mahai gaineko telefonoak eta mugikorrek/*smartphone*ak dauzkagu.

#### ✓ Mahai gaineko telefonoak:

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak telefonoak aldatu ditu sailetan eta erakunde autonomoetan. Horri esker, teknologia analogikotik teknologia digitalera pasatu gara.

Ondorioz, gaur egun Eusko Jaurlaritzaren Sare Korporatiboko langile guztiek **IP telefonoak**<sup>3</sup> daukate lanpostuan. Gailu berri horiek, besteak beste, erabiltzaileak zenbait



zerbitzu erabiltzeko (liburuan pertsonak aurkitzeko, dei-tonua aldatzeko, etab.) balia dezakeen interfaze moduko pantaila bat daukate. Bada, nahi duen pertsonak interfazeko menuen hizkuntza ere konfiguratu dezake.

Horretarako, urrats hauek egin beharko ditu:

1. Sakatu «Configuración» tekla (engranaje baten antzekoa)
2. Teklatuko gezien bidez, mugitu «Idioma» aukeraraino
3. Eta, behin barruan, hautatu «Euskera» aukera

#### ✓ Telefono mugikorrek edo *smartphone*ak:

Une honetan, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak modelo hauek ematen ditu:

- Goi-kargudunentzat:  
Samsung Galaxy 7 *edge*, iPhone 7, Huawei P9, iPhone 7 Plus, Huawei P9 Plus.
- Teknikarientzat:  
Samsung Galaxy S6, Huawei P8 Lite HSPA+, ALCATEL *onetouch*.



Telefono mugikorrek edo <i>smartphone</i> -ak	Euskeraz
ALCATEL <i>onetouch</i>	✓
Huawei P8 Lite HSPA+	✓
Huawei P9	✓
Huawei P9 Plus	✓
iPhone 7	✗
iPhone 7 Plus	✗
Samsung Galaxy S6	✓
Samsung Galaxy 7 <i>edge</i>	✓

Horiek guztiek interfazea (pantailako menuak, botoiak, etab.) euskaraz konfiguratzeko ahalbidetzen dute, iPhone-ek izan ezik.

### AUKERA GEHIAGO

Bestalde, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak («Euskararen tresnak» atalaren barruan) bai Sare Korporatiboko langileentzat bai Eusko Jaurlaritzatik kanpoko edozein pertsonarentzat eskuragarri dauden aplikazioen zerrenda bat dauka. Zerrenda horren barruan, Windows XP, Windows 7, Office 2003 eta 2007, OpenOffice.org 3.3.0 eta abar konfiguratzeko eskuliburuak zein



euskaraz erabiltzeko zuzentzaile ortografikoen *plug-in*ak, Skype, etab. aurki ditzakegu, baita hiztegiak ere<sup>4</sup>.

## EUSKARAREKIN LAN EGITEKO

Hona hemen gure lanpostuan erabil ditzakegun, euskararekin zerikusia duten eta **HAEE**ren menpe dauden beste baliabide batzuk:

- Euskalsarean administrazio publikoentzat irekitako aplikazioak
- **ELET** («*Euskaraz Lan Egiteko Tresnak*»): HAEEK garatzen duen aplikazio informatikoa da eta euskaraz lan egiteko zenbait tresna eskaintzen ditu. Adibidez, aditz trinkoen konjugazioen simulazioa egiteko aukerak ematen ditu. Gainera, deklinazio-kasu batean edo batzuetan deklinazio zehatza lortzea edo data bat nola idazten den ikustea ahalbidetzen du. Zenbait hiztegitan bilaketak egiteko aukera ere badago, etab.
- **IDABA**: Eusko Jaurlaritzaren itzulpenen datu-basea da; hitzak eta terminoak kontsultatzea zein testu itzuliak bistartzea ahalbidetzen du. Datu-base honek IZOn (Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean) egiten diren itzulpen garrantzitsuenak biltzen ditu.



- Interneten eskuragarri dauden aplikazioak

- **DudaNet**: HAEEK herritarrei eta erakundeeri Interneten doan eskaintzen dien kontsulta-zerbitzua da. Helburua administrazio-zerbitzuen eta lege- eta administrazio-terminologiaren arloan hizkuntza-zalantzak argitzea da.
- **Euskalterm**: Euskal Terminologia Banku Publikoa da eta urteetan egindako terminologia-lanak biltzen ditu. Haren helburu nagusia, beraz, terminologia erabiltzeko orientabideak eta gomendioak ematea da.
- **Xuxen**: euskarazko ortografia- eta gramatika-zuzentzailea da.

Berrikuspen labur honen ostean, tresna horiek erabiltzera animatu nahi zaituztegu. □

<sup>4</sup> **Euskararen tresnak**: euskarazko aplikazio gehiago erabili nahi badituzue, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren webgunea ere kontsulta dezakezue. Bertan, euskarazko software gehiago (*appak, plug-inak...*) eta horiek euskaraz konfiguratzeko gidak daude.

## ELZ/CAU

ELZ/CAU ([Erabiltzaileen Laguntza Zentroa / Centro de Atención a Personas Usuarías](#))

Eusko Jaurlaritzaren sistema informatikoei buruzko edozein gorabehera-motari (arazoak, matxurak...) erantzutea xede duen zerbitzua da.

Eusko Jaurlaritzaren sistema informatikoekin arazoren bat daukan eta Eusko Jaurlaritzaren

Administrazio Sare Korporatibokoa den edozein pertsonak erabil dezake zerbitzu hau.

**Zerbitzu honetan euskaraz ere eman ahal dizute arreta.**

Zerbitzua telefono-zenbaki hauetan dago eskuragarri:

- ✓ Lakua  
945.016.440
- ✓ Araba  
945.016.440
- ✓ Bizkaia  
944.032.440
- ✓ Gipuzkoa  
943.022.440



Telefono bidezko arretaren ordutegia 08:00etatik 20:00etara da, lanegunetan, astelehenetik ostiralera.

Euskarazko profila instalatzeari edo konfiguratzeari buruzko edozein konfiguraziori buruzko edozein zalantza edukiz gero, ELZra jo dezakezue laguntza eskatzeko.



## Espedienteen digitalizazioa Lanbiden



Lanbidek<sup>5</sup> euskal Administrazioaren digitalizazio-proiektu garrantzitsuenetako bati ekin dio. Artikulu honetan, aztertuko dugu zein den abiapuntua eta zein urrats egiten ari den proiektua arrakastatsua izan dadin.



<sup>5</sup> **Lanbide:** Euskal Enplegu Zerbitzua da, Eusko Jaurlaritzak herritarren esku jartzen duena langabeak enplegua bilatzerakoan orientatzeko asmoz: <http://www.lanbide.eus>

Urriaren 13eko 3/2011 Legearen bitartez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomo gisa.

<sup>6</sup> **DSBE:** «diru sarrerak bermatzeko errenta»ren siglak dira. Baliabide nahikorik ez daukaten pertsonen eta familien oinarrizko beharrei erantzuteko hileroko prestazio ekonomikoa da, lan-irteera bat aurkitzen laguntzen zaien bitartean.

**N**ork ez du inoiz entzun «paperik gabeko bulego» terminoa? Baina norbaitek ezagutzen al du? Bada, horretan datza gaia: Lanbiden **1.200.000** agiri zirkulaziotik kendu nahi dituzte, bai, miloi bat paperezko agiri baino gehiago urtean. Tira, zehatz-mehatz kontua ez da kentzea, horrelakorik ez sortzea baizik: erregistratzen dokumentazioa eskaneatzea, dokumentazio horren kopia autentiko bat sortzea eta jatorrizkoak leihatilara joan den pertsonari itzultzea.

### Sarrera

**DSBE**<sup>6</sup> (diru-sarrerak bermatzeko errenta) arautzen duen araudiak eskatzen du haren prozeduretan dokumentazio osoa **paperean** aurkezteko eta espediente bakoitza 2 urtean behin berriro aztertzeke, dokumentazio osoarekin. Araudi hori iruzurra saihesteko da hain hertsia.

Egitan, espediente konplexuak dira, ebaluatu beharreko informazio ugari daukate eta, dagoen **elkarreragingarritasuna** erabiltzeko ahalegin handia egiten den arren, espedienteko kudeaturiko bizikidetzako unitate bakoitzak dokumentazio ugari aurkeztu behar du, eta, gure ikuspuntutik

garrantzitsuagoa baita, dokumentazio hori ezin da desagertu behin izapidetuta, eta artxibo-irizpideen arabera gorde behar da.

### ERRONKA

**Izapidetzea** alde batera utzita, paperean zein formatu digitalean beti egin behar izango baita, **biltegitratze-** eta **artxibatze-** beharretan jarriko dugu arreta nagusia.

Lanbidek 47 bulego dauzka herritarren arretarako; horietan, hasieratik 2014ra arte, hilean ehun mila agiri metatzen ziren batez beste, bakarrik DSBEri buruzkoak. Modu horretan, bulego bakoitzak 28.000 agiri inguru gordetzen zituen urtean. Imajina dezakezuen bezala, hori arazo larria izan daiteke edozein erakunderentzat.

2014an, Lanbidek izapidetutako dokumentazioa artxibora azkar bidaltzeko sistema bat diseinatu zuen, kanpo-enpresa batek kudeatua; horri esker, bulegoetako paper-biltegitratzea arintzea lortu zuen. Sistema dokumentazio guztiaren eskaneatze masiboan oinarritzen da; gero, dagokion espedienteari esleitzen zaio, ondoren kontsultatzeko, eta paperezko formatuan dagoen agiria artxibora bidaltzen da (Lanbiden sartzen den erregistro-idazpen bakoitzak 3 agiri ditu batez beste, eta agiri bakoitzak gutxi gorabehera 3 irudi dauzka).

Hala ere, horrek ez du arazoa erabat konpondu: dokumentu-palet asko eta asko sortzen dira eta aldizka **Eusko Jaur-**



**laritzaren Artxibo Orokorre**ra bidali behar izaten dira.

## HELBURUAK

Orain, jatorrian (herritarren arretarako gunean) digitalizatzeko proiektuari esker, paper-kantitate eskergaren sorketa eta erabilera ekiditeko helburu handiaz gain, araudia<sup>7</sup> bete nahi da:

✓ Jada 2007an, **11/2007**

**Legeak**, 6. artikuluan, esan zuen herritarrek ez zutela zertan aurkeztu administrazioak bazeukan dokumenturik edo daturik. Gaur egun, 39/2015 Legeak, 11/2007 Legea indargabetzen duenak, 28. artikuluan, puntu hori areago azpimarratu eta zabaldu egiten du.

✓ **39/2015 Legea**, espediente elektronikoa eta hori administrazioen artean EENren (Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalaren) araudiaren bidez trukatzeara arautzen dituena.



### Erabilitako tresnak

Proiektu hori burutze aldera, zenbait zume (tresna) behar dira saski hori osatzeko. Deskriba ditzagun:

Alde batetik, **Eusko Jaurlaritzaren Dokumentu Kudeaketa Sistema Integrala**, dokusi<sup>8</sup> izenekoa, daukagu. Dituen funtzionaltasun guztietatik, bi oinarrizkoak izango dira irtenbidea diseinatzeko: alde batetik, agiri elektronikoak eta horietako sinadurak gorde eta berreskuratze gaitasuna ematen digu eta, bestetik, paperezko euskarrian dauden agirien digitalizazio segururako tresna da.

Azken horrek behar den legezko estaldura emango digu funtzionarioak «kopia autentiko digitalak» sortu ahal izan ditzen, eta hori da puzzle honen guztiaren funtsezko piezetako bat.

Lanbidek, bestalde, bere erregistro-sistema eta espedienteak kudeatzeko sistema erabiliko ditu. Tresna integratu horri esker, erregistro-idazpenak modu errazago eta naturalagoan heldu ahalko dira horiek kudeatzeaz arduratzen diren pertsonengana.

Kudeaketa-tresna horrek dokusi biltegiatze-sistemarekin ezin hobeki jardungo du eta, gainera, erregistro-moduluan digitalizazio seguruko tresna integratuko du, tartean dauden alderdi guztien betekizunak bete daitezzen.

## PROZESUAREN ANTOLAKETA

Lanbidek erregistro-idazpen bat izapidetzeko diseinatu duen antolaketan, 3 profil bereizten dira: **erregistratzailea**, **izapidegilea** eta **gainbegirlea**. Ikus ditzagun bakoitzaren funtzioak:

**ERREGISTRATZAILEA** herritarri leihatilan arreta emateaz, aurkeztutako dokumentazioa jasotzeaz eta hori eskaneatze-prozesurako prestatzeaz, eskaneatzeaz eta erkatzeaz arduratuko da. Erkaketa horren amaieran, agiri bakoitzeko «OK» bat eman behar da, eta horregatik nahitaezkoa da jasotako agiri guztiak bistaratzea. Emaitzaren kalitatea eta zehaztasuna berrikustean, «kopia autentiko



### <sup>7</sup> Araudia:

**11/2007 Legea**, ekainaren 22koa, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoa.

(2007ko ekainaren 23ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 150. zenbakia)

[Xedapena gaur egun indargabetuta dago]

**39/2015 Legea**, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

(2015eko urriaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 236. zenbakia)





digitalak» sortuko dira, eta jatorrizko agiriak leihatilan eman dituen pertsonari uanean bertan itzuli ahalko zaizkio. (Eskaneatze-prozesuan akatsen bat detektatuz gero, agiri okerrak ezabatu ahalko dira eta prozesua errepikatuko da).

Erregistratzeko uanean, erregistratzaileak herritarraren arrazoia edo asmoa eta izapidetu beharko duen bulegoa lotzen dizkio erre-gistro-idazpenari, eta sistema infor-matikoak bulego horretan lotuta dagoen izapidegileari bidaliko dio idazpena.



**IZAPIDEGILEAK** idazpen-erregistroak aztertuko ditu eta horiek izapidetzeaz arduratuko da. Izapidegile orokorra, eskuarki, funtzionarioen *pool* edo talde bat izango da; funtzionario horiek, «Sarrera-postontzian» sartuz, erregistra-tzaileak esleitu dizkien idazpenak ikusiko dituzte.

Izapidegileak idazpen bat aztertzen duenean, agiriei beren **agiri-mota** esleituko zaie, **dokusik** ezartzen duen moduan, eta, mota horrek derrigorrezko metadatuak esleituta baditu, bete egingo dira. (Adibidez, NAN

batek NAN zenbakia izango du metadatu gisa).

Zeregin hori gauzatzeko, izapidegile batek espedienteko agiri guztiak bistaratu beharko ditu, eta, horretarako, interfaze bat garatu da, *klik* gutxiren bidez agiri guztiei agiri-mota bat eta haren metadatuak esleitzea ahalbidetzen duena.

«Lanbideren proiektuak urtean paperezko 1.200.000 agiri digitalki biltegitratzea eta artxibatzea du xede»

Hala ere, Lanbiden (beste sail eta erakunde autonomo batzuetan gerta litekeen moduan) **dokusik** besterik ezean definitzen dituzenez bestelako agiri-motak gehitu behar dira. Horrela, izapidegileak hautatzen duen agiri-mota Lanbideko «negozioa» izango da, eta batzuen eta besteen arteko barne-lotura bat egongo da.

Era berean, Lanbideren definizio funtzionalak erabakitzen badu **dokusik** eskatzen dituzenez



<sup>8</sup> **dokusi:** Eusko Jaurlaritzaren Dokumentu Kudeaketa Sistema Integralari, **dokusiri** (akronimoa euskarazko izenetik dator), buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, «**dokusi: dokumentu-kudeaketa berria**» artikulua kontsulta dezakezue, 2008ko iraileko Aurrera aldizkarian, 31. zenbakian.



## LANPOSTUA

Agiriak eskaneatuko dituen lanpostua ez da askoz ere konplexuagoa egingo. Digitalizazio seguruko tresnarekin bateragarria den eskaner bat instalatuko zaio soilik.

Tresna horrek kalitate desberdinekin eskaneatzea ahalbidetzen duen arren, «gris-eskala aurredefinituan» erabiltzea gomen-datzen da, inolako doikuntzarik egin behar izan gabe. Zuzenean koloretan egin daiteke, orobat bereizmenak moldatu gabe.

Digitalizazio-tresnaren eta eskanerraren



artean lortzen den emaitza benetan ikusgarria da: pasaldi batean agiri baten 2 aldeak eskaneatzeko gai da, alde zuriak bereizten eta amaierako emaitzatik kentzen daki, eskaneatzeko abiadura handia da (gris-eskalan minutuko 80 orrialde egiten ditu) eta

DIN-A4 baino agiri txikiagoak, adibidez, NANak eskaneatzea ahalbidetzen du (baina handiagorik ez).

Gainera, agirien arteko bereizleak erabiliz, eskaneatze-prozesu bakarrean zenbait dokumentu lortu ahalko dira, automatikoki.



bestelako metadatu gehigarriak behar direla, horiek ere arazorik gabe kudea daitezke.

Erregistratzaile batek erregistro-idazpen baten izapidetzea esleitzean huts egiten badu, espedientea jaso duen izapidegileak idazpen hori baztertu ahalko du, eta hori baztertzeen postontzira itzuliko da. Une horretan, erregistratzaileak mezu bat jasoko du; bertan, baztertze bat daukala adieraziko da eta izapidetze-xede berria egokiro aldatu baino ez du egin beharko espedientea izapidetzen jarraitzeko.

**GAINBEGIRATZAILEA** baztertze guztiak ikusi, eta egokien iruditzen zaion moduan kudeatu ahalko dituen pertsona izango da. Profil horri esker, urteko aldi jakin batzuetan gertatu ohi diren bajengatik edo oporregatik kudeatu beharreko ausentzien arazoak saihestea lortuko da.



## ABANTAILAK

Edozein prozeduraren **digitalizazioak** abantaila asko eskaintzen dizkio edozein sail edo erakunde autonomori, eta Eusko Jaurlaritzak gaur egun bere eAdministrazioko Plataforma Teknologikoaren bidez (**PLATEA**) eskaintzen dituen tresnen eta **sistema informatiko horizontalen** erabilerak ere bai. Esate baterako, hauek dira abantailetakoz batzuk: legea betetzea, espedienteen truke elektronikoa erraztea eta espedienteen kudeaketa erraztea, PLATEAK eskaintzen dizkigun segurtasuna eta eskuragarritasuna

ahaztu gabe.

Lanbideren kasu zehatzean, bulegoetara joaten diren pertsoneri emango zaien erantzuteko **denbora** da irizpide

«Digitalizazioari esker, edozein espediente berehala helduko da izapidegilearengana»

garrantzitsu bat. Bada, **dokusiren** erabilerari esker, Lanbideren leihatila batean sartzen den erregistro-idazpena berehala hel daiteke bere izapidegilearengana, edozein bulegotan dagoela ere.

Bestalde, aurrerantzean digitalizazio-prozesua bulegoan bertan burutuko denez, Lanbidek gaur egun zerbitzu hori kanpoan emanarazteko erabiltzen duen **dirua** beste zeregin batzuetarako erabili edo inbertitu ahalko da.

Nolanahi ere, Lanbidek bulego bakoitzaren eta haren barne-antolamenduaren errealtateari buruzko azterketa bat egitea aurreikusita dauka, bulego batzuetan sor daitezkeen gailurrak edo jendearen ilarak ahal den neurrian ekiditeko.

## MARTXAN JARTZEA

Herritarren arretan funtsezkoa izango den sistema bat abian jartzeko, kontuz jardun behar da, eta horregatik zenbait **proba pilotu** egingo dira.

Gaur egun, dokumentazioaren erregistroan kudeaketa-bolumen urria duen bulego bat abian dago jada; hor, alde zuzenetik definitutako bulegoen zerrenda mugatu batera bidali beharreko idazpenak bakarrik digitalizatuko dira (bulegook sistema berrian trebatuta egongo dira). Ondoren, kudeaketa-bolumen handiagoko beste bulego<sup>9</sup> batzuk hautatuko dira eta, azkenik, bulego guztietara hedatuko da. □



<sup>9</sup> **Bulegoak:** gaur egun, Lanbidek **erregistroko 47 arreta-gune** dauzka Euskadiko hiru probintzietan banatuta:

- ✓ 7 Araban
- ✓ 20 Bizkaian
- ✓ 16 Gipuzkoan
- ✓ 3 lurralde-bulego
- ✓ Eta Txagorritxuko bulego nagusia

Eta 922 pertsonen osaturiko plantilla.



## ALBOAN:

## Gauzen Internet (IoT) Proiektu pilotuak



«IoT teknologia erabil daitekeen eremua zabala eta askotarikoa da»

**J**oan den apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Bulego Teknologikoak teknologia berriei buruzko beste informazio-saio bat antolatu zuen Eusko Jaurlaritzako sailetako eta erakunde autonomoetako informatika-arloko langileentzat. Oraingo honetan, «Gauzen Internet» jorratu zen; ingelesezko siglez ere ezagutzen da: IoT («*Internet of Things*»).

Aurkezpenean **EJIE**ko (Eusko Jaurlaritzaren



Informatika Elkarteko) eta **Itelazpi**ko (telekomunikazio-azpiegitura publikoak kudeatzeaz arduratzen den sozietate publikoko) arduradunek parte hartu zuten. Haren helburua zen teknologia hori oinarritzen den ezaugarri teknikoak ezagutaraztea eta euskal Administrazioan burutzen ari diren proiektu pilotu batzuk azaltzea.

[Teknologia berri horren funtzionamenduaren xehetasunen eta betekizun tekniko berri izateko, Aurrera aldizkariaren 63. zenbakia, 2018ko martxoan argitaratutakoa, kontsulta dezakezue]

### PROIEKTU PILOTUAK

Ondoren, aurkeztu ziren proiektu pilotu nagusiak eta haien ezaugarriak azalduko dizkizuegu.

#### ➤ **Aparkalekuak**

Pilotu hau Eusko Jaurlaritzak Lakuako gunean (Gasteiz) dituen aparkatzeko eremuetan sentsore batzuk instalatzean datza. Horri esker, une oro jakin ahalko da zenbat plaza libre edo okupatu dagoen aparkalekuan eta, horrela, edukieraren kudeaketa erraztu egingo da.



Era berean, Jaurlaritzako langileek erabiltzen duten sarreran sentsore bat instalatuko da, une oro adibidez eraikin batean dauden pertsonen kopurua jakin ahal izateko.

Kasu honetan, Itelazpi IoT sarea diseinatzeaz eta hedatzeaz arduratuko da, eta EJIE, berriz, aplikazioak garatzeaz.



### ➤ Elektrizitate-kontsumoa

Pilotu honetan, Itelazpik berak hartu du «erabiltzaile» zeregina, sentsore batzuk instalatu baitira hain zuzen ere haren antenetako batzuetan, haien kontsumo elektrikoa urrunetik ezagutzeko asmoz.



### ➤ Ur-kontsumoa

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin elkarlanean burutu den proiektua da eta ur-kontagailuak neurtzea du xede. Instalatzen diren sentsoreei esker, tarte zehatz batean ur-ihesen bat dagoen jakin daiteke, ur-kontsumoa urrunetik ezagut daiteke (horrela pertsona bat lekualdatu behar izatea saihesten da), etab.

Kasu honetan, Itelazpi sareaz arduratu da, eta Partzuergoa, aldiz, aplikazioez.



### ➤ Gorabehera elektrikoak

Zenbait eraikinetan sentsoreak instalatzea aurreikusten da, adibidez, elektrizitate-hornidurari lotutako gorabeheraren bat gertatuz gero dagokion teknikariaren telefono mugikorrera mezu bat bidaltzeko, matxura konpontzera joan dadin; horrela, beste eremu bateko teknikariak arazoaren kausa aztertzeraz joan behar izatea saihestuko da.

### ➤ Abereen kokapena

HAZirekin (nekazaritzako elikagaiez arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakundearekin) elkarlanean burututako proiektua.

Kasu honetan, abereei lepoko batzuk (sentsoreak dituztenak) jarri zaizkie; horiei esker, abeltzainak une oro jakin dezake non dagoen animalia.

Sentsorea egurats zabalean eta izaki bizidun bati atxikita dagoenez, zuzenean egiaztatu ahal izan da nola erantzuten dien sentsore bakoitzak temperatura-aldaketari, animalien mugimenduei eta abarri.



### ➤ Zaborraren kudeaketa

Ultrasoinu-sentsore batzuk instalatu nahi dira (bai Lakuaren bai EJIEn) zenbait zabor-edukiontzitan. Sentsore horiei esker, eta urrunetik, hondakinak biltzeaz arduratzen den pertsonak jakin lezake, esate baterako, noiz bete den edukiontzi bakoitza, une egokian husteraz joateko eta behar ez diren joan-etorriak saihesteko.

Laburbilduz, asmoa da zaborra biltzeko zerbitzuaren eraginkortasunaren berri izateko informazio zehatza edukitzea eta, aldi berean, «green» adierazleak izatea.



## ONDORIOAK

Ikusi dugunez, IoT teknologia eremu zabaletan eta askotarikoetan erabil daiteke. Hori dela eta, proba horien guztien asmoa izan da teknologia berri hori sakontasunez aztertzea eta haren funtzionamendua, instalatu behar diren elementuak, sentsoreak baldintza eta ingurune desberdinetan (animaliengan, kanpoaldean...) instalatzen badira sor daitezkeen arazoak ikustea, horretan guztian oinarrituta beren premietarako aukera egokiena proposatzeko sailei eta erakunde autonomoei, behar dutenean. □



«Proba hauen asmoa IoT teknologia berria sakontasunez aztertzea izan da»



Webguneak:

EJIE

[www.ejie.eu](http://www.ejie.eu)

Itelazpi

[www.itelazpi.eu](http://www.itelazpi.eu)





## IXTEKO

### Badator Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO)

**J** oan den 2018ko maiatzaren 25ean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO siglez ere ezagutzen da) Datuak Babesteko Lege Organikoa (DBLO) ordeztu zuen.



Europako arau berri hori Batasuneko herrialde kide guztietan aplikatzekoa da, eta haren helburu nagusia da datuak babesteko estandar zorrotzak, egungo munduaren errealitate digitalarekin bat datozenak, bermatzea. Hain zuzen ere, beste urrats bat da bai enpresek bai administrazio publikoek kudeatzen dituzten datu pertsonalak babesteko, DBLOk xedatutako oso bestelakoak diren betekizun batzuk ezarriz: ez da

fitxategirik aitortu behar, ez da auditoretzarik egin behar, etab.

Araudi hori betetze aldera, Eusko Jaurlaritzak, azken hilabeteetan, kudeaketa batzuk egin ditu, adibidez, «datuak babesteko ordezkariaren» figura, haren ezaugarriak eta abar zehazteko.

Nolanahi ere, edozein araudi berriekin gertatzen den moduan, erregelamendu berri honek zalantza ugari sortu ditu. Beraz, hurrengo aldizkarietan alderdi esanguratsuenak edo Eusko Jaurlaritzak horri dagokionez egiten dituen kudeaketak jakinaraziko dizkizuegu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren webgunea kontsulta dezakezue:



<http://www.avpd.euskadi.eus>



## PROTAGONISTAK

### María Ángeles Martín Prats irakasleak jaso du Emakume Teknologoarentzako Ada Byron saria

**S** evillako Unibertsitateko Ingeniaritza Elektronikoko saileko irakasle titular María Ángeles Martín Pratsek jaso du duela gutxi Emakume Teknologoarentzako Ada Byron saria.

Golar do horrek **Deustuko Unibertsitateko** Ingeniaritza Fakultateak bultzatzen du, ikerketa eta garapen teknologikoen eremuan emakumeen bokazioak sustatzeko, teknologiarri bizitzaren eremu guztietan eta gizarte-garapenean garrantzia emateko eta emakumeek zeregin eta ikasketa horiek eginez gizateriari eman dizkieten lana eta erdiespenak balioesteko helburuarekin.

Golar doa 3.000 eurokoa da, Bizkaiko Foru Aldundiaren, IK4ren eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen babes du eta Innobasqueren eta Basque BioClusterren laguntza ere badauka.

Informazio gehiago, Emakunde aldizkarian eta Irekian.

<http://www.irekia.euskadi.eus>

<http://www.emakunde.euskadi.eus>



(Ezkerretik eskumara)  
María Ángeles Martín Prats irakaslea eta Izaskun Landaida Larizgoitia (Emakunderen zuzendaria).  
[Argazkia: Irekia]

